

# etxalde

nekazaritza iraunkorra

54

2019 iraila

«Laster ardi ainitzez gutiago izaiten ahal da bortuan» Bettan Hoqui laboraria

Alemaniak ere glifosatoa debekatuko duela iragarri du, Monsantoren pestizida pozoitsua.

Campaña de verano: fruta de hueso ruinosa para el agricultor

## «Euskal Herri mailan hiltegiaren inguruko hausnarketa sakon bat faltan botatzen dugu»

Zigor Gorostiaga




## AURKIBIDEA:

3 · Editoriala: «La carne, protagonista veraniega»

4 · «Producción animal, más allá del sí o el no», Patricia Dopazo Gallego y Pedro M. Herrera

5 · «Nekazaritza politika bateratuaren eztabaida agertoki publikora» Joseba Otondo

6 · «Euskal herri mailan hiltegiaren inguruko hausnarketa sakon bat faltan botatzen dugu» Zigor Gorostiaga.

10 · «Ahora mismo sabemos que existen otras posibilidades de gestión, lo que pedimos es que sean claros y nos expliquen qué tipo de gestión van a hacer» Ziortza Uriarte

12 · Vuelta a las andadas de la distribución al utilizar una vez más la leche como producto reclamo con motivo de la vuelta al cole

13 · Campaña de verano: fruta de hueso ruinosa para el agricultor

14 · Erromon bendeja egiteko arazoak dihardute

15· Daños de jabalí, crece la indignación

16 · «Laster ardi ainitzez gutiago izaiten ahal da bortuan» Betta Hoqui

18 · Nekazaritza uztiategietako errelebo irekiko programan aurkezteko epea zabalik

20 · Alemaniak ere glifosatoa debekatuko duela iragarri du, Monsantoren pestizida pozoitsua

21· La codicia desenfrenada de la industria agroexportadora está liquidando al planeta

22 · La via campesina celebra la conferencia intermedia en Zimbabue

24 · Nuevo estándar socava los acuerdos sobre el clima y afianza la geoingeniería

27 · Huelga mundial por el cambio climático

29 · Formazioa

# La carne, protagonista veraniega.

El Panel Intergubernamental de Cambio Climático de Naciones Unidas (IPCC por sus siglas en inglés) presentó un informe sobre el uso de la tierra y los impactos derivados de la misma respecto al calentamiento del planeta. En el informe destacan entre otros factores que están agravando el calentamiento global, el mal manejo de la tierra en la agricultura (sobredosis de pesticidas) que reduce su capacidad de absorber carbono, y la deforestación (el informe es previo a los incendios de la Amazonia). Afirmaba también el informe que el alto consumo de carne vacuna y productos lácteos está alimentando la crisis climática, si bien destacaba que no existe prejuicio contra la proteína de origen animal, siempre que sea producida en sistemas resilientes, sostenibles y de bajas emisiones. La inmensa mayoría de los medios de comunicación resumió esas mismas conclusiones sobre la idea de que comer carne es un factor determinante en el cambio climático (un nuevo ejemplo de que el periodismo se está convirtiendo en un mar de conocimientos de 1cm de profundidad). Está claro que la circulación de la alimentación a escala planetaria es determinante en las emisiones de CO2, y que la producción industrializada en ganadería está concebida para la construcción y mantenimiento de esas mega-autopistas alimentarias. Y en ese sentido es muy importante resaltar que todos los acuerdos de libre comercio aprobados (el último el de la UE con Mercosur) se basan en la multiplicación de circulación alimentaria. Por lo tanto es importante ir a la raíz del problema para ir buscando soluciones y encontrar alternativas. El cierre del matadero de Laudio (temporal afortunadamente) venía a ser la puntilla para nuestras baserritarras, después de la sobre-exposición mediática sobre el consumo de carne. En semejante contexto era previsible que los responsables del Departamento de Agricultura, en este caso el Viceconsejero vía entrevista radiofónica; saltarán a la palestra para trasladar mensajes de tranquilad sin concretar ninguna estrategia de desarrollo. Transmitir que el consumo de carne con sello de calidad es sinónimo de garantía no es suficiente sino profundizamos en el modelo de producción, y si en esa dirección no se acometen los cambios reglamentarios necesarios para que nuestro ganado (con sello de calidad) no pueda seguir siendo alimentado con soja importada, sea transgénica o no si estamos hablando de transporte internacional. Seguir insistiendo de que los mataderos no deben recibir apoyo financiero desde las arcas públicas; no se ajusta a la verdad la afirmación de que los mataderos de base municipal hacen competencia desleal al resto de mataderos (Urkaiko) puesto que las APAs que lo gestionan cuentan con ayudas públicas anuales; equivale a dejar morir la producción local y apostar por la importación de carne despiezada (la última década ha aumentado más de un 60%). Ensalzar el consumo local debe ir acompañado de estrategias en la producción, transformación y comercialización para fortalecer el mercado interno; los últimos datos publicados por Eroski sobre el aumento de consumo de alimentación local dejan muy claro que la parte consumidora está dispuesta a acompañar en estrategias de producción y desarrollo sostenible. Lamentablemente nuestros responsables políticos siguen sin estar a la altura, si bien no faltan ejemplos en los que reparar como la decisión del Parlamento austríaco de aprobar una moción que obliga al gobierno de Austria a vetar ante el Consejo de la Unión Europea la aprobación del tratado con Mercosur. Esta sí es una buena noticia para la carne europea y vasca.

etxalde
nekazaritza iraunkorra

**etxalde@etxalde.eus**
**www.elikaherria.eus**
Lege Gordailua: SS 50-2015

bidean | euskararen bidean

Editorea: Etxalde Nekazaritza Iraunkorra elkartea
Inprenta: Gertu S.Coop
Maiztasuna: Hilabetekaria
Aleak zenbakiko: 5.600

# Producción animal, más allá del sí o el no

Patricia Dopazo Gallego
Pedro M. Herrera

La conveniencia de la carne y otros productos de origen animal en nuestras dietas es un tema que está saltando a las tribunas de actualidad de forma recurrente y no exenta de polémica. Algunas instituciones internacionales advierten de los riesgos para la salud derivados de su consumo excesivo, diversas organizaciones ecologistas abogan por reducirlo drásticamente e incluso el diario The Guardian, citando a la revista Science, afirmaba que dejar de comer carne sería la acción individual más eficaz para defender el medio ambiente.

Comer carne barata producida de forma intensiva está provocando deforestación y especulación con la tierra cultivable, contaminación de aguas y la emisión de enormes cantidades de gases de efecto invernadero. El movimiento animalista, con cada vez más influencia social, trabaja para eliminar completamente estos productos de nuestra alimentación por motivos éticos. Más pragmáticos, los grandes inversores hacen cábalas sobre la llamada "carne de laboratorio" con el objetivo de aprovechar tendencias de mercado. Aunque el reciente informe de Greenpeace La insostenible huella de la carne en España, indica que nuestro consumo de carne está disminuyendo desde 2002, las estadísticas globales muestran la tendencia contraria. En los próximos años se espera un incremento muy elevado de consumo de carne industrial tanto en África como en Asia y Latinoamérica, lo que está generando una expectativa de incremento de las exportaciones en países productores como el nuestro. Por ello, la producción industrial cárnica está actualmente tratando de implantar grandes explotaciones intensivas de vacas, cerdos o pollos en algunas de las zonas más despobladas de nuestra geografía. El sector de la carne representa el 2,2% de nuestro PIB y está liderado por el porcino, del cual el Estado español es el cuarto productor mundial, por detrás de China, EE UU y Alemania. Según el sector, en 2017 la carne de porcino española alcanzó los 4,25 millones de toneladas, lo que supone el sacrificio de casi 50 millones de cerdos anuales, de los cuales una tercera parte van a la exportación.

A partir de estas dimensiones productivas, las expectativas de crecimiento, la volatilidad de los precios de los piensos y la necesidad de producir a bajo coste, puede deducirse que las macrogranjas provocan, allí donde se establecen, graves impactos económicos, sociales y ambientales, lo que ha generado una contestación social sin precedentes y la creación de la Coordinadora Estatal Stop Ganadería Industrial.

Entonces, ¿hay que comer menos carne? ¿Toda la carne es igual?

## LA GANADERÍA EXTENSIVA NO ESTÁ REÑIDA CON LA SOSTENIBILIDAD

Muchas de las organizaciones y personas que se oponen a las macrogranjas participan o simpatizan con la Plataforma por la Ganadería Extensiva y el Pastoralismo, que defiende "un modelo de producción de alimentos seguros y de calidad que aprovecha, de forma sostenible, los pastos y recursos naturales, incluso en los lugares más hostiles y complicados de la tierra: desiertos, montañas, tundras. El pastoralismo, es decir, el modelo de ganadería que se apoya exclusivamente en el territorio para conseguir sus recursos, genera culturas vibrantes y únicas, aunque a menudo, incomprendidas y marginalizadas". La propia FAO proclama su apoyo a esta modalidad ganadera como aporte imprescindible en la seguridad alimentaria, la resiliencia de las comunidades locales, la economía y la salud de nuestro entorno.

(...) Para leer artículo completo:

https://www.elsaltodiario.com/ganaderia/sector-carnico-produccion-animal-intensiva-soberania-alimentaria

# Nekazaritza Politika Bateratuaren eztabaida agertoki publikora



Joseba Otondo Bikondoa

Ondoko egunetan Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) solasbide izanen dugu Euskal Herrian. Horrela, Bilbotik (irailaren 25ean) Baztanerako (irailaren 27an) ardatzean Europako Batasuneko politika garrantzitsuenetako baten barrenak azaleratzeko ahalegina eginen da; interes talde zehatzek iluntasunean nahi duten eztabaida agertoki publikora ekarriz eta, gaiaren dimentsio politiko guztia azaleratuz. Eta egitekoak zerrendatzen hasita hori lehenetarikoa da. Aurrekontu komunitarioaren ia %38 hartzen duen politika publikoa baita, denera 60.000 milioi euro mugitzen dituena, europar bakoitzak banaz bertze 114 eurorekin finantziatua. Beraz, eztabaida publikoa sustatu behar da eta gaia politizatu.

Bertzalde, Euskal Herriko lurraldeen artean alde nabarmenak badaude ere eta osotasunean lehen sektorean ari direnen kopurua %2ra ez iritsi, herrialde eta eskualde batzuk izaera landatar nabarmena dute eta batzuetan nekazaritzak pisu berezia du. Ohikoan NPBri buruzko eztabaida ardatz horietan eman da, landa inguruneko eta lehen sektoreko gaitzat hartuta; modu aski interesatuan batzuetan gainera. Haatik, azkeneko aldian gero eta gehiago Elikadura eta Nekazaritza Politika Bateratuari buruz ari dira eragile sindikal eta sozialak Frantziako estatuan; eta IPES-FOOD nazioarteko adituen taldeak, zuzenean, Elikadura Politika Bateratu berria aipatzen du. Afera ez da kontu terminologiko hutsa, elikadurak jendarte osoa gurutzatzen baitu eta, horrek, jokoa gizarte osora hedatzeko aukera paregabea eskaintzen du. Ildo horretan Baztanen eginen den jardunaldiak elikadura osasuntsua eta landa eremu biziak ditu ardatz, jendarteko sektore desberdinen artean aliantzak eraikitzeko ageriko nahiarekin. Izan ere, bizia sortu eta birsortzeko prozesu sozial eta ekonomikoetaz –kasu honetan elikadura sistemaz- birjabetzea, etorkizun justua eraikitzeko gakoa baita.

Aipagarria da, bertzalde, saioak Euskal Herria izanen duela erreferentzia marko nagusia, noski, Europako eta Estatuetako testuinguruekin harremandurik. Baina euskal lurralde guztiak hartzeko borondatea du, eta euskaraz. Horretarako arlo akademikoko hainbat adituren laguntza aktiboa izan da, nekazarien sindikatu eta mugimenduetakoena, teknikariena, toki erakundeetakoena… Denei esker egitarau mamitsua, ongi egituratua eta koherentea antolatu ahal izan da, NPB bere osotasunean hausnartzeko baliagarria izan daitekeena. Elkarlanerako espazioak inoiz baino beharrezkoagoak dira eta Europako hainbertze tokitan NPB berriari buruz aritzeko eta proposamenak egiteko hainbat topagune zabal sortu diren bezala, Euskal Herrian ere beharrezkoa litzateke.

Bukatzeko, orain arteko NPBen ondorioak NPBren Atlasean (Atlas de la PAC) ederki laburbildurik datoz eta eztabaidagai nagusiak ere ongi zehazten ditu, helburuak finkatu bidenabar: “elikadura sistema iraunkorretarako trantsitzioan lagunduko duten politikak behar ditugu, elikadura-antolaketan ekoizleen eta kontsumitzaileen protagonismoa berreskuratuko dutena; eta elikagai osasuntsuak produzitu eta kontsumitzeko eskainiko dutenak, ekosistema sanoetan”. Baztango jardunaldiak horri erantzun nahi dio. Gonbidaturik zaudete.

# «Euskal Herri mailan hiltegiaren inguruko hausnarketa sakon bat faltan botatzen dugu»



Abuztuaren 6an Laudioko hiltegiaren erabiltzaileak honen itxieraren albistearekin aurkitu ziren. Hainbat bilera eta filtrazio ondoren udalak irailaren 16an kaltetuekin bilera deitu zuen. Bertan hiltegia berriz irekiko dela ziurtatu zien, eta printzipioz orain arteko kudeaketa eredu berberarekin jarraituko du. Berriztapen lanak irailaren 17an hasi dituzte.

Gaiaren inguruan sakontzeko Orozkoko Zigor Gorostiaga abeltzainarekin eta Laudioko Ziortza Uriarte harakinarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

**Nola egin diozu aurre hiltegiaren itxierari?**

Ni itxi zutenetik Mirandara joan naiz. Kuriosoa da ze zoaz hemendik hara, ta han Burgos jartzen dauen karteletik 50 metrotara dau hiltegia. Egon ahalko zan 100 metro lehenago, baina hola izango bazan, hiltegia itxita egongo zen. Arazoa da behin hiltegi bat itxiz gero, alternatibak bilatzen hasten zara. Eta klaro, alternatiba on bat behin topatu duzula, barriz atzekora bueltatzea oso zaila da. Bai abeltzainontzat zein harakinentzat ere. Beraz, Laudiokoa lehen bait lehen irekitzea beharrezkoa da.

**Mirandako hiltegia da hurbilen geratzen dena zuentzako?**

Hemendik Orozkotik geuretzako bai. Bueno autopista hartuta denbora berdinean egon zaitezke Oñatikoan, baina autopistaren kostua eta arriskua handiegia da, azkenean ni abeltzaina naiz eta abereak daramatzat hiltegira. Arratiatik eta Durangaldetik bai joaten direla Oñatira, uste dut beraiekin porteak eta horrelakoak ere antolatuta dituztela.

**Non nabaritzen da gehien hiltegia betiko itxiko balitz?**

Nire iritziz abeltzainak izango ginateke kaltetuenak. Eslaboi edo katebegi ahulena gu garelako gehienbat. Harakinak ere, batez ere bertako produktua saltzearekin benetako konpromezu bat duten harakinentzat. Azken finean Mirandako hiltegira eramateak bertakotasun horri balioa ere kentzen dio nolabait. Baina zenbakiei bakarrik begira dagoen harakin bat moldatuko litzateke bertako hiltegi gabe ere.

**Nola eragingo dio abeltzainari?**

Gure adibidea esaterako. Gure moduko baserri batean, bertako produktuekin lanean, salmenta zuzena egiten, agroekologiaren ereduaren inguruan



moldatzen... puzzle hau osatzeko pieza asko behar dira. Arraza aldetik bertako arrazakaz lan egiten dugu, saiatzen gara bertako elikagaiak ematen ganaduari, batzuetan negu partean pentsua ekarri beharra izaten dugu Nafarroa aldetik. Baina ahalegintzen gara lanaren bitartez errentagarritasun hori bilatzen. Bedarrak ebagi, bolak egin... lan handia eta margen estuak izaten dira gehienetan. Orduan puzzle horretako edozein pieza kenduz gero oreka apurtzen da. Eta kasu honetan guretzako hiltegia pieza garrantzitsu bat da. Katearen beste begi bat da eta zentzua ematen dio produkzio guztiari, berton hilteak zentzua du. Ekologikoki ere ganadua hemendik eraman behar izateak ez du zentzurik. Garraio horretan inbertitzen edo galtzen dugun denbora eta dirua ere kontutan hartu behar dira, eta nola ez, animaliek jasaten duten estresa. Ez da berdina 10/20 minututako bidai egin edo 40tik gorako bat. Abereen ongizatean eragina du.

**Posible da eredu iraunkor horri eustea?**

Gaur egun eredu iraunkor baten aritzeak, daukagun errealitatearekiko kontran joatea da, korrontearen kontra. nahiz eta gero, administrazioak eta arduradun politikoek esan jasangarritasunaren alde daudela, benetan ez da inor korrontearen kontra benetan jarri. Oso barneratuta dauzkagu eredu kapitalistaren ohitura asko eta bertako nekazaritza iraunkor batera bueltatzeak horiek ahaztea eta energia eta lan inbertsio handia suposatzen du.

**Laudioko hiltegia munizipala da, baina zerbitzua herritik haratago doa, nola jardun beharko luke?**

Laudioko hiltegia udaletxearena da, baina guk ere ikusten dugu eskualde osoari ematen diola zerbitzua. Eskualde mailan kriston eragina dauka. Orain arte ezagutu dugun baserrigintza honetan jarraitu nahi badugu ezinbestekoa da hiltegia zabalik mantentzea. Etorkizunera begira babes publiko bat edukitzea oso garrantzitsua da iraunkortasuna bermatzeko, hiltegia guztiz pribatizatzen bada, azkenean zenbakiei bakarrik begiratuko diete eta guretzako argi dago zenbakietatik haratago doan zerbitzu bat dala. Esan bezala eragin oso zabala dauka, bai gizartean, bai lekuko produktuen garapenean eta orohar tokiko garapenean ere.

**Ze eredu edo zelan gestionatu beharko liteke hiltegia?**

Hori ez dakit, ez dago formula majikorik. Uste dut eskualde bakoitzak begiratu beharko lukeela nola gauzatzen duen hori. baina gutxieneko babes publiko bat egon behar dela ezinbestekoa da, beste edozein zerbitzu bezala. Gizartean oso barneratuta dugu badaudela zerbitzu batzuk gizarteari onura batzuk ematen dizkiola, nahiz eta errentagarriak ez izan, eman behar direla eta izaera publikoa izan behar dutela.

**Gaur egun badaude hiltegi publiko eta pribatuak...**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Oñatiko hiltegia dugu guztiz publikoa dena, Tolosakoa publikoa baina kudeaketa pribatuarekin, Donostikoa pribatua eta Urkaiko kooperatiba dena baino ez daude. Hiltegien artean hala ere,

nahiz eta pribatuak zein publikoak izan, gutxieneko

«puzzle horretako edozein pieza kenduz gero oreka apurtzen da. Eta kasu honetan guretzako hiltegia pieza garrantzitsu bat da»

batzuk adosten badituzte prezioaren inguruan adibidez, gero konpetentziarik ez dadin egon, ez dut ikusten batzuk publikoak izan eta beste batzuk pribatuak izatearen arazorik. Gero bai arlo publikoa egotea beharrezkoa da arazorik baldin badago zeozelango bermea izateko. Gu azken finean ez gara honetan adituak, baina arazorik egonez gero instituzio publikoak atzean egoteak nolabaiteko indarra edo konfiantza ematen du. hau da, kudeaketa pribatua izan daiteke, baina zerbitzua publiko bezala mantenduz, egitura publikoa izanez.

**Desoreka bat agirian geratzen da... zergatik daude horrenbeste Gipuzkoan eta gainontzeko herrialdeetan ia bat ere ez?**

Euskal Herri mailan hiltegiaren inguruko hausnarketa sakon bat faltan botatzen dugu. Daukagun lurraren arabera eta dagoen abeltzainen arabera ikusi beharko liteke hiltegien beharra. Orain Gipuzkoan badaude, baina Araba eta Bizkaia kolokan geratzen dira. Azken urteetan epe laburrera bakarrik begira ibili gara eta honek gaur egungo desoreka eta arazoa dakar. Baina, hau ez da abeltzainon lana, agintarien lana izan beharko litzateke. Azkenean, baserritarron eguneroko lanean kriston kaltea izan da hiltegiak ixten joan direnean. Eskualdeetan oso nabaria da hau gainera. Eskualde bat hiltegi gabe geratzen denean baserritarrek bere aktibitatearekin nola jarraitu pentsatu beharra du. Honen eraginez askok loditzeari uzten diote.

**Eta zeintzuk izan daitezke alternatibak hiltegia itxiz gero?**

Ba nik nire kasuan adibidez, Laudioko hiltegiarekin zer gertatuko den zai nagoen honetan, alternatibak pentsatu beharrean nago. Posible litzateke behi gehiago jarri eta pasteruak saltzea, kooperatiba batera, Torrelavegara edo auskalo



nora, baina kanpora ziurrenik. Alternatiba honekin jakiak ekoizteko ahalmena galduko nuke eta ez nioke balio erantzirik aterako errentagarritasun murriztuz. Eta ondorioz behi gehiago ekarri beharko nituzke eta nire filosofiarekin ez dator bat. Gainera larre publikoetan dut ganadua, eta honela izanez gero ni bezalako lau abeltzainekin larre publiko guztiak beteta legozke. Sozialki ez da jasangarria. Beste alternatiba bat, abeltzain bizia alde batera uztea izango litzateke. eta bururatzen zaidan beste aukera bat arraza autoktonoak alde batera utzi eta arraza kanpotar bat ekarri genetikoki bertoko ondasunak aprobetxatzeko gaitasun hobea izan dezakeena. Baina honekin uste dut nire ereduarekin jarraitu arren koherentzia apur bat galduko nuela. Azken finean lur publikoak erabiltzen ditugu, eta lur publiko horretan urteetan ibili diren gainontzeko animaliei ere nolabaiteko trastornoa eragin diezaioket kanpoko arraza bat ekartzean. Norbere landetan dituenak egin dezake, baina larre publikoak beste kontu bat dira. Egia da, orain Mirandara eramaten ditugula, eta hiru lau hilabete egon zaitezke horrelako bidaiak egiten, baina hau ez da jasangarria.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Egoera estu batean aurkitzen gara hiltegien auzian. Baina hau aldatzeko esperantza badut. Orain urte batzuk agintariek mezuak ere ez zituzten bide agroekologikotik bideratzen. Orain behintzat mezuak bide horretatik doaz, klima aldaketa eta ingurugiroaren ardura dela eta. Hori ba, oraindik ekintzak falta dira. Eta argi izan behar dute agintariek gutxieneko egiturak beharrezkoak direla, eta horietako bat hiltegiak dira. Laudioko hiltegiaren inguruan hausnarketa eginez, ikusten dugu hiltegi zahar bat dela, baina dagoen egitura bat da. Beraz, honi bultzada bat emateak dirua kostatzen du baina ez asko. Inbertsio txiki batekin bideratu daiteke eta zerbitzua ematen jarraitu. Esan bezala lehen eskualde gehienetan zeuden hiltegiak, eta gaur egun ia denak desagertu dira. Laudiokoa oraindik badago, eta hau zabalik mantentzea guztiz beharrezkoa da sektorearen biziraupenerako. Hiltegi gabe geratu diren eskualde gehienetan abeltzantza eredua aldatu da. Eta gaur egun honi buelta ematea oso zaila da. Egiturak desagertu dira eta honek, azpiko ekoizle sarea galdu egin dugu. Eta orain hau berreskuratzea oso zaila izango da. Jada gaudenak txarto gaude, imajinatu barriak, orain hasi nahi dutenak, ezer barik, ezta hiltegirik. Orain diskurtsoa barneratuago dago, baina berbetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela ere esango nuke. Ekintzarik ez badago, urte gutxitan sektorearekin bukatuko dugu.

## Garraioa

Garraioak sekulako garrantzia du. Guk gure animaliak gure erremolke propioetan garraiatzen ditugu. Gure kasuan basora igo edo basotik etxera ekartzeko erremolke berdinean eramaten ditugu hiltegira. Honek suposatzen du, animaliek ez dutela erremolke arrotz batean joan beharrik, lasaitasun osoarekin kargatzen ditugu, inolako soka, palukada, ezta lotu gabe. Honek, nola ez, animalien ongizatean eragina dauka. Honi, ibilibidea 20 minututako izatea gehituz zer esanik ez. Gainera guk normalean gauez eramaten ditugu animaliak hiltegira. Lasai daudela probetxatuz eta inongo kanpo estimulo gabe. Hau da, hiltegia eskualdean bertan izatea ez da onura abeltzainontzat soilik, animalien ongizatean eta ingurugiroan ere eragin zuzena dauka. Eta gure ongizatean ere, guk animaliak ongi ikusten baditugu, lasaitasuna ere eskuratzen dugu eta gauzak gustorago egiten ditugu.

# «Ahora mismo sabemos que existen otras posibilidades de gestión, lo que pedimos es que sean claros y nos expliquen qué tipo de gestión van a hacer»



**¿Cómo os dejó la noticia del cierre del matadero?**

A los carniceros y carniceras de Laudio nos dejó la noticia con el culo al aire. Yo por ejemplo tenía todo atado y preparado para hacer uso del matadero el lunes por la tarde, como cada semana, y la noticia salto el lunes a la mañana. ¿Entonces qué haces? ¿Con todo atado y el matadero cerrado? Pues empieza a llamar al ganadero, suspende guías, y empieza a moverlo todo para ver que matadero nos puede atender.

**¿Con cuál conseguisteis tratar al final?**

Pues nos atendieron en Oñati y menos mal, que tampoco es que tengamos muchos mataderos cerca.

**¿Cómo os ha afectado?**

Os lo voy a explicar exponiendo mi caso, pero la gran mayoría de carniceros y ganaderos estamos en la misma tesitura. Yo lo que hacía antes era, mi ganado que está en Aiala lo llevaba en remolque al matadero, lo sacrificaban allí y seguido me lo traían a la carnicería. Este servicio de cercanía y confianza ha sido una maravilla. De esta manera además al ganado también no estresas, es todo calmado y con trayectos cortos. Y una vez sacrificado y con el ok de las analíticas pertinentes yo ya lo podía tener en la carnicería disponible para el consumidor. Para nosotros el que el matadero este abierto y funcionando es primordial. Y Ya no solo para la gente de Laudio, para Bizkaia era un servicio recurrente. Es decir, en Bizkaia sin matadero ahora, mucha gente hacía uso de este de Laudio. Al fin y al cabo, ¿cuánto se tarda desde diferentes puntos de Bizkaia aquí? Nada.

No solo afecta a los carniceros y ganaderos. Afecta también al bienestar animal. El hecho de que el trasporte sea corto aporta beneficios al propio animal, van mucho más cómodos. Y cómo no al consumidor. La carne viene bien fría desde el matadero hasta los almacenes de las carnicerías, optimizando la calidad de la carne. Por esto es por lo que estamos intentando mostrar como este cierre nos afecta a todos y todas.

**¿Y el viaje o traslado?**

El viaje que actualmente tenemos que hacer con los animales supone de una hora por lo menos para llegar a Oñati. Aunque el animal sea tranquilo, suele sufrir. Lo que solemos hacer es intentar que este una noche en el propio matadero parado y así conseguir tranquilizarlo. ¿Esto que supone para nosotros? Pues el domingo a la mañana vamos hacía Oñati, allí pasa el día y el lunes lo sacrifican. El martes les dan el ok y el miércoles ya viene en el camión de reparto. Claro que en el camión de reparto pasa mucho más tiempo que cuando lo traemos del matadero de Laudio, porque depende de la ruta de reparto, unos, dos o tres horas no nos lo quita nadie.

**¿Y esto afecta?**

Aunque sea un camión frigorífico, que trae la temperatura controlada y tal, la carne no está igual. Por ejemplo, a mi cuando me lo traen y lo meto en mis cámaras, el motor de las cámaras se pone a funcionar como loco, porque no es la temperatura adecuada, cosa que antes no ocu-



rría. Y esto no es nada conveniente para los carniceros.

**¿Qué os llevo a organizaros para responder al cierre del matadero?**

Nos quedábamos sin servicio. Entonces, había que reunirse los carniceros y ganaderos de Laudio y empezar a mover algo. Pero somos conscientes que no es un problema que afecta solo a los de Laudio, también a comarcas limítrofes y cercanas. Como claro ejemplo esta mi caso. Yo tengo carnicería en Laudio, y al mismo tiempo soy ganadera de Aiala, y para rematar soy de Orozko. Claramente, no es un problema que solo afecte a Laudio.

**¿Qué es lo que solicitáis desde la plataforma?**

Yo más le llamaría grupo de trabajo. Pero vamos, que la reivindicación primordial es que se nos vuelva a abrir inmediatamente el matadero de Laudio. Después de la reapertura se debe formar una mesa de trabajo donde se nos involucre un poco a los diferentes agentes de esta cadena para poder ver y prever problemas y cuestiones que nos afecten. Está claro que si nos dejan estamos dispuestos a ayudar. Y luego está también pendiente la aclaración de gestión a futuro que quieren hacer.

**¿A qué te refieres con gestión a futuro?**

Por ejemplo, a mí me parece perfecto que no quieran hacer más parches. Ya que se puede, se realiza una obra en condiciones y se deja la infraestructura para que dure otros 20 años por lo menos, y así garantizar el servicio en un futuro. A nosotros nos parece estupendamente que siga funcionando como hasta ahora en lo que a la gestión se refiere. Es un matadero púbico que tiene una gestión privada. Ahora mismo sabemos que existen otras posibilidades de gestión, lo que pedimos es que sean claros y nos expliquen qué tipo de gestión van a hacer. ¿Una gestión pública? ¿La privatizaran? ¿Lo mancomunaran? Qué futuro nos espera para saber a qué atenernos. Una vez que sepamos esto, ya sabremos tanto los carniceros como ganaderos que es lo que tenemos que hacer para garantizar nuestra actividad.

**Me hablas de ganaderos y carniceros, ¿solo afecta a ellos el cierre?**

De momento es lo único que se ve. Pero no es así. Lo que pasa es que de momento tanto los ganaderos como los carniceros estamos abonando de nuestros bolsillos el coste añadido de porte que nos ha supuesto el cierre del matadero. Ahora bien, lo podemos asumir siempre y cuando sea temporal, si esto se alarga es evidente que terminará por subir el precio del producto final, y los consumidores se verán también afectados.

**La noticia ya ha salido a la luz de que lo van a reabrir…**

Si, la noticia sí, pero desde el ayuntamiento nadie se ha puesto en contacto directamente con nosotros. Nosotros oficialmente a día de hoy no sabemos nada.

**Con todo esto el lunes 16 tenéis reunión con el ayuntamiento…**

En esta reunión nosotros tenemos claro cuál es el objetivo primordial, que es abrirlo. Que hagan todas las inversiones que tengan que hacer, y las obras, pero que se abra cuanto antes. Así ya aseguraremos 15 o 20 años el funcionamiento del matadero a niveles de infraestructura. Luego ya hablaremos del tipo de gestión, si hace falta mancomunarlo, poner tasas a los no municipales o lo que sea.

# Vuelta a las andadas de la distribución al utilizar una vez más la leche como producto reclamo con motivo de la "vuelta al cole"

Durante las últimas semanas de agosto han proliferado ofertas de leche con precios anormalmente bajos en varias cadenas de distribución. En concreto, Alcampo, Carrefour y BM Supermercados realizaron ofertas abusivas a 0,55€/l, tanto en marcas propias como en marca de fabricante, para leche UHT (entera, semidesnatada y desnatada), utilizando incluso el logotipo PLS ( Productos Lácteos Sostenibles) avalado por el Ministerio de Agricultura.

En este sentido, desde COAG se reclamó al MAPA y la AICA (Agencia de Información y Control Alimentarios) actuaciones urgentes en colaboración con los organismos competentes de las CC.AA. para evitar que esta práctica se generalice en todas las cadenas. Una vez más la distribución aprovecha cualquier campaña para banalizar un producto alimentario para utilizarlo como producto reclamo en base a promociones con precios por debajo de costes. La destrucción de valor en la cadena de la leche de es algo que perjudica al conjunto del sector, puesto que impide la sostenibilidad económica de sus eslabones, así es imposible asegurar el relevo generacional, cuestión que agrava el abandono del sector y la despoblación del medio rural. Según indica el informe de coyuntura del sector vacuno de leche del MAPA de agosto de 2019 se han perdido en el Estado casi 1.000 explotaciones lácteas en el último año. Los ganaderos están percibiendo de media 0,31€/l, precios que no permiten cubrir sus costes de producción, situados por encima de 0,35€/l. y prácticas de este tipo no hacen más que poner palos en las ruedas de un sector que necesita todo lo contrario del resto de eslabones de la cadena.




# Ganaderos de Zamora producirán la leche y la cooperativa GAZA la envasará.

La personas consumidoras que han decidido que la leche provenga de granjas cercanas a la fábrica donde se envasa la leche y retribuida de manera correcta y garantizando al productor que pueda invertir en la mejora de su actividad. 0,39 €/litro. Que las vacas sean alimentadas con al menos un 50% de forraje, favoreciendo el contenido en omega-3 y sin aceite de palma o derivados. También los consumidores han decidido añadir apoyar la gestión sostenible de las pequeñas granjas familiares.

Una cuestión importante y que no puede quedar en el tintero, es la de que el 70% de los consumidores han votado a favor de la alimentación de las vacas sin transgénicos. Los promotores de esta iniciativa han indicado que tienen decidido avanzar en esta dirección y que este deseo de tener una alimentación sin transgénicos sea una realidad para todos, pero a corto plazo, les es difícil cumplirlo.



# Campaña de verano: fruta de hueso ruinosa para el agricultor

**Las grandes cadenas distribución no están trasladando al consumidor en toda su magnitud la bajada de precios que sí están aplicando al agricultor. El resultado, un diferencial que roza el 600% del árbol a la mesa**

**Los últimos datos del IPC contrastan con la realidad del sector. En el campo, melocotones y nectarinas cotizan un 25% por debajo del precio medio de los últimos 5 años mientras que los costes han crecido, de forma especial en mano de obra.**

**Tras varias campañas consecutivas con precios que debajo del umbral de rentabilidad, el abandono de explotaciones familiares frutícolas es cada vez más acusado.**



El balance que arroja la primera mitad de la campaña de fruta de hueso resulta desolador para los productores. El análisis del Departamento de Economía Agraria de COAG subraya los efectos de la nueva estrategia de las grandes cadenas de distribución: fruta de hueso más barata al consumidor, ruinosa para el agricultor pero más beneficiosa para intermediarios y grandes superficies. "Supone una vuelta de tuerca más. Los productores de fruta "financiando" la nueva estrategia de las cadenas de distribución: fruta más barata desde el inicio de la campaña de verano (mayo) para que ese suelo marque la tónica en los meses restantes y les facilite ganar cuota de mercado en frescos respecto al comercio tradicional. De esta manera, se pierde el denominado "efecto de entrada" y la rentabilidad de las zonas de producción más tempranas que solía ser habitual, por no hablar del resto de zonas que entran en el mercado cuando se generaliza la campaña", ha afirmado David Borda, responsable del sector de fruta dulce de COAG.

Los datos en el campo son más que elocuentes. El precio de salida en mayo ha sido en un 43% menor en melocotón que la media de los años 2013-2018 y un -47% en nectarina. "Las gigantescas centrales de compra de la distribución europea han ejercido una mayor presión a la baja en los precios manteniendo los niveles de importaciones de fruta tropical y su presencia en los lineales en las semanas clave en las que salen al mercado las primeras partidas de fruta española", ha apuntado Borda.

El consumidor sí ha podido acceder a fruta más barata, (en mayo de 2018 el melocotón empezó a venderse en destino a 3,79 €/kg, mientras que en la presente campaña se ha situado en 2,93 €/kg), datos que contrastan con los datos del IPC publicado el pasado 13 de agosto. En lo que va de campaña (mayo-julio) los precios en el campo se han situado por debajo de la media de los mismos meses en las campañas 2013-2018, (-26% en melocotón y -27% en nectarinas, según el Índice de Precios Origen-Destino IPOD), mientras que los costes han crecido, de forma especial en el capítulo de mano de obra. El propio Ministerio de Agricultura, en su último boletín de análisis de la campaña de fruta de hueso (semana 30), sitúa las cotizaciones en origen de melocotón un 12% por debajo de la media de los últimos 5 años y un -24% respecto a 2018.

Aún así, si analizamos el diferencial de precio entre el árbol y la mesa, podemos observar cómo en lo que va de campaña 2019, el margen medio origen-destino se ha situado en un 538% para melocotón y un 543% para nectarina, con niveles máximos en el mes de mayo de 633% y 643% respectivamente. Tal y como se puede observar en la siguiente tabla, diferenciales claramente por encima de la media de las últimas 5 campañas. "Es decir, no están trasladando al consumidor en toda su magnitud la bajada de precios que sí están aplicando al agricultor", ha puntualizado el responsable de fruta de COAG

Tras varios años en los que los precios a los agricultores/as en las distintas zonas de producción se han situado por debajo de los costes de producción, provocando la venta a pérdidas y llevando al abandono de explotaciones familiares, la situación actual es muy complicada y las perspectivas para afrontar futuras campaña son muy negativas por falta de liquidez y el alto nivel de endeudamiento. "Se está acelerando un cambio de modelo en nuestro sector frutícola. Los grandes inversores y capitales ajenos al agro, que han aterrizado en este sector como un elefante en una cacharrería, quieren quitarse de en medio cuanto antes a las pequeñas y medianas explotaciones familiares para que no entorpezcamos el desarrollo de su hoja de ruta y sus ansiados dividendos", ha lamentado David Borda.

# Erromon bendeja egiteko arazoak dihardute




Pasa den urtetik datorren auzia dugu Erromoko bendejarena. Izan ere, Etxalde aldizkariaren 43. Alean baserritar honek izandako arazoaren berri eman genuen. Urtea pasata afera berdinean aurkitzen da.

2013 urtea geroztik udaro Erromoko elizaren aterpean bere baserriko produktuak saltzen ibili izan da Peio Fuente baserritarra. Iragan urtean udaltzaingoaren aldetik pare bat identifikazio izan ondoren garaiko produktuak saltzen utzi zioten, inolako isun gabe.

Aurtengo bendejaren lehen egunean, abuztuaren 12an konkretuki, udaltzaingoa berriz azaldu zen bertara, eta identifikazioaz gain geratzen zitzaizkion produktuak kendu zizkioten. Gertaera hau bideoz grabatua izan zen eta zabalkunde zabala eta berehalako erantzuna izan zuen honek.

## AGROASANBLADAREN ERANTZUNA

Uribe Kostako agroasanbladak bendejaren lehen egunean gertatutakoaren harira erantzun kanpaina bat antolatu zuten. Gauzak honela Bizkaiko hainbat baserritarren babesa eta inplikazioa lortu zuten. Abuztuaren 19an antolatu zuten lehen bendeja masiboa, bertan Anbotopeko agroasanblada, Iurretako baserritarak, Gamiztik eta Uribe Kostako agroasanbladako hainbat baserritar bildu ziren, 8 postu osatuz. Hauetaz gain jendartearen babesa ere izan zuten 70 bat lagun inguru bertaratuz.

Kanpainarekin jarraitzeko beste bost astelehenetan deitu izan dituzte inguruko baserritarrak bendeja masibora, eta Uribe Kostako agroasanbladaren esanetan bai beste baserritarren zein herritarren erantzuna oso positiboa izan da, eta babestuta sentitu dira.

## ETORKIZUNERA BEGIRA

Agroasanbladatik adierazi digutenez Getxoko udalean bendeja egitea ez dago erregulatua “salbuespen batzuk baino ez daude onartuta, neguan gaztaina salmenta, txurreriak eta izozki salmenta Portu Zaharreko paseoan”. Norbanako moduan ezin dute salmenta egiteko eskaerarik aurkeztu, honetarako irabazi asmorik gabeko elkarte baten izenean luzatu beharra dago. Hau dela eta agroasanblada bezala eskatzeko asmoa dutela azaldu digute eta honetan lanean jarriko dira datorren urtean hau posible izan dadin. “Algorta eta Erromon bendeja egitea arautu nahi dugu, bi puntu garrantzitsu direlako. Horretarako lanean gabiltza proiektua aurkeztu ahal izateko.”

# Daños de jabalí, crece la indignación

En las últimas semanas estamos recibiendo en el sindicato numerosas llamadas de baserritarras que han sufrido daños para comunicarnos su preocupación con esta cuestión. Los daños son cada vez más numerosos, y aunque si se ha constatado que en algunos lugares donde recientemente se han realizado batidas los daños han disminuido, también es cierto, que en otros, especialmente en las reservas, las batidas realizadas en zonas limítrofes están teniendo como consecuencia un incremento de los mismos.

Está claro que los mecanismos actuales de conocimiento, traslado de la información disponible, gestión y compensación del creciente desequilibrio medioambiental que está suponiendo el crecimiento exponencial y sin control de esta especie en Bizkaia no sólo son insuficientes, sino que además también resultan inadecuados.

En este sentido es necesario resaltar el grave perjuicio que está suponiendo la inexistencia de un plan de gestión y control multilateral, resultando que el único espacio en el que se puede tratar la cuestión poblacional y la posible actuación sobre individuos es el Consejo Territorial de Caza de Bizkaia, espacio en el que las necesidades del sector agrícola ganadero no se ve representado con suficiente equilibrio al tratarse esta cuestión desde el único punto de vista de la caza.



# Erlete erkartearen aurkezpen ekitaldia

## Irailaren 14an Axpen ospatu zuten Erlete erlezain elkartearen aurkezpena.

Durangaldeko 15 erlezain txikik osatzen dute elkarte hau. Orain urte bete, Etxalde aldizkariaren udako alean elkartearen berri eman genuen, baita beraien eztiola kooperatiboa sortzeko asmoaren berri ere. Bada hilabete batzuetako lanari esker beraien eztiola kooperatiboa aurkezteko aukera izan dute.

Aurkezpenean ezin eskertu gabe utzi beraien proiektuan sinestu eta hau aurrera irten dadin, bai ekonomikoki zein beste moduetara lagundu dietenei.



# «Laster ardi ainitzez gutiago izaiten ahal da bortuan»



**Bettan Hoqui Zalgizeko (Xiberoa) laborari gaztea da. Duela 10 urte, familiako etxaldean instalatu zen. Ofizioan gehienik maite dituen lanetan udan ardiekin bortuan egoitea da. Larraineko Bostmendietan ardiak deizten ditu eta gasna ekoizten. Hartzaren gaiak oso kezkatzen du.**

**Nolako etxaldea da Jauregiberrizaharrea ?**

Gure etxaldea Zalgizen da. Baditugu 35 hektarea pentze bainan zinez barreaturik : Zalgizen, Irurin eta Barkoxen. 350 ardi buru beltz baditugu, 8 euskal xerri eta 5 pottoka. Esne guzia gasnatzen dugu etxean. Bortuan deizten (jezten) eta gasnatzen dugu, uztaila bukaeraino. Amarekin lan egiten dugu etxaldean. Bortuan Bostmendietan gira (Larraine), bakarrak gira olhaltian (etxolan) eta marroak berant ezartzen ahal ditugu (abusztuan).

**Hi instalatzean, bide berri batzu jorratu nahi izan dituk...**

Nahi nuen lehen gauza zen bortuan deizten berriz hastea. Ttipitan amarekin aritu nintzan, bainan geroztik ez. Bazen ia 20 urte ez ginuela bortuan deizten. Instalatu naizelarik, berriz hasi naiz eta gurasoek untsa lagundu naute, haiek baitituzte belar guziak egin lehen urteetan etxean. Nik astia nuen bortuan egoiteko eta artzain ofizioaren eta gasna egiten ikasteko.

Ene ikastaroetan, ekologikoan ziren etxaldeetan ibili naiz. Eta etxean gauza berdina egiteko asmoz nintzan. Bihi egiteko lurrak 3,5 ha ditugu. Gure sistiman ez genuen lur aski rotazioen egiteko. Ondorioz, bildotsen sortzeko sasoia berandu dugu : ardiak udaberrian erdiz, kanpoan bada bazka eta zereala gutiago emaiten dugu. Ardi arraza aldatu dugu ere : manex buru gorritik buru beltzerat. Bortua hobeki baliatzen dute buru beltzek eta denbora luzeagoz egoiten dira mendian. Udazkenean, ez dugu prisarik jausteko, ardiak egoiten dira urria erdiraino (lehen, irailaren 15-20an jausten ginen). Ardi saldo osoarekin igotzen girenez (bortuan deizteko), kasik beste hilabete bat irabazi dugu udaberrian ere.

Aurten hasi dugu ekologikoari buruzko konbertsioa.

**Hartzaren gaiaz hire kezkak agertu dituk uda hasieran, mintzaldi batzutan parte hartuz...**

Bai noski kezkak baginituen borturat joan baino lehen, ez baiginakien nola pasako zen uda. Han izaitez bost hilabetez, segur beldurra badugula

hartza etor dadin gure ardien atakatzera. Erasorik ez da izan Xiberoko bortuetan (Hautes-Pyrénées-tako erasoa, elgarrizketa hau egin ondoren gertatu da). Ariege-ko (Pirineo ekialdean) artzainen esperientziari so eginez ere, ez dugu utzi nahi hartz hori instalatzen, baitakigu nola pasatzen diren gauzak han eta zoin kezka haundia duten. Ainitz pagaturik ere ardi hila, guk ez dugu beldur horrekin bizi nahi bortuan. Ez dugu onartzen ahal pagaturik izaitea ardiak sofrituz hartzaren bazkatzeko joaiteko.

**Batzuk diote ez dutela bi hartzek artzaingoa zangoz gora igorriko...**

Aurten jadanik badira artzain batzu borturat joan ez direnak, arriskurik ez hartzeko. Erasorik izan ez zelarik oraindik. Xiberuan, guk bezala, batzuk badute zinez bortuaren beharra beren etxaldearen biziarazteko. Bainan ainitzek badute lur frango etxaldearen ondoan eta borturat badoaz familiako historian baita, tradizioa baita eta plazerra ere. Ardi gutirekin badoaz, eta bortuan gogortzen hasten bada, berehala geldituko dute. Laster ardi ainitzez gutiago izaiten ahal da bortuan eta nik irrisku bat bezala ikusten dut artzaingoarentzat.

**Geroari buruz, nun ikusten dituk kezkak eta esperantza punduak laborantza sektorean ?**

Kezka bat da ikustea mementoan Ariege-an nola sofritzen ari diren artzainak eta nola Estadoak ez duen deus egiten hauen laguntzeko, lotsagarria da. Ibar horietan bada odola eta ez dira prest hola abandonatzeko. Ikusiz Estadoa nola tematua den, nabari da bortizkeria, tensioa, goratzen ari dela eta ez dakigu nola bukatuko den. Nik esperantxa dut laborari ez diren jendeen sustenguan. Zinez guti gira laborariak populazio osoaren arabera. Orai arte jendek, gure ekoizpenak maite dituztenek, defendatu gaituzte gauza ainitzentzat, bai Laborantxa Ganbara muntatu delarik, bai ahateen krisa izan delarik... Hemengo bortueri lotua bada jendea, ez badu nahi dena zikintzen ikusi, herrietako bizia nahi badu, sustengatu behar gaitu. Mobilizaziorik gabe ez da deus mugituko.

---

# 185 ardi hil zaizkie Baxe Nafarroako bi artzaineri



Abuztuaren 30an, 17 ardi hil aurkitu dituzte Baxe Nafarroako bi artzainek Hautes-Pyrénées eskualdean bortuan daukaten ardi saldoan. Oraindik bizirik ziren ardien artean, hamarnaka zauritu baziren, eta 45 hil behar izan zituzten, zauri larriegiengatik. Ardi tropa oso beldurturik atxeman zuten eta 250 ardi desagertuak ziren.

Albaitari eta tokiko guardak etorri ziren, ardien artatzera eta hil behar zirenen hiltzen laguntzera. Hauen erranen eta azterketen arabera, erasotzailea hartza da ; administrazioak ere mezu berdina zuzendu die artzaineri bainan oraindik ez da dokumentu ofizialik erantzulea identifikatzen duenik.

Artzain ainitz ibili dira bi gazteen laguntzen eta falta ziren ardien bilatzen. Batzu aurkitu dituzte bizirik bainan ere, sei egun berantago, 123 ardiren errestoak, peña baten puntatik salto egin ondoren hilak, erortzean edo zaurien ondorioz.

Kalte haundi horiek ikusirik (185 ardi hilak, 100 zauriturik, 60 oraindik falta), artzain sektoreak bere haserrea plazaratu du eta hartzak artzaingoa den tokietarik urrun emaitea eskatu dio berriro frantses estadoari.

# Nekazal ustiategietako errelebo irekiko programan aurkezteko epea zabalik

## Nekazaritza ustialekuetan errelebo irekiko programa norgehiagoka arautzen dituzten oinarriak publikatu dira, 2020LGPri jarraituz.

Neurri hau FEADER funtsek kofinantzatzen dute %80an eta programaren helburua nekazaritza sektorean pertsonen inkorporazioa dinamizatzea, titularrak jarduera utzi nahi duen nekazaritza enpresa batean, 6 hilabete arteko egonaldiak baliatuz, modu horretan aipatu enpresaren kudeaketan erreleboa eta enpresa beraren jarraipena bermatzea bilatzen delarik. Errelebo Irekiaren helburua da egonkorrak diren nekazaritza enpresetan sartzeko aukera ematea eta hauen titularrek jarduera uzten dutenean enpresa bertan behera ez uztea, uztera doazen eta sartzera doazen pertsonen arteko harremanak eta ezagupenen transferentzia indartuz.

Eskaera aurkezteko epea 2019ko urriaren 10an bukatuko da.



# Lurrik gabeko laborariak eta segidarik ez dutenak harremanetan jartzeko lau saio Nafarroa Beherean

2018an ELB sindikatuak antolatu zituen Kafe Instalazioa delako saioak Iparraldeko sei herritan, 2014ean urratutako bide bati berriro ekinez. Honela argudiatu zuten orduan antolatzaileek: "Duela zonbait urte Iparraldeko eskualde desberdinetan antolatu ziren kafe instalazioek arrakasta pollita ukan zuten eta gazte andana bat hurbildu zen. Instalazioaren [baserri bat bere gain hartzearen] gaia estakuru gisa hartuz, instalatu berri, instalatzeko bidean edo laborantxari nola lotu pentsaketetan ari ziren gazteek ideien eta ikusmoldeen partekatzeko tokia atxeman zuten".

Afal osteko bilkura haietan behin eta berriro entzun zen argudio hau: "Zaila da uztartzea libro diren etxaldeak eta martxan ezarri nahi diren proiektuak". Hari horretatik tiraka, aurten Euskal Herriko Laborantza Ganbarak hartu du antolakizuna bere gain, afal ondoko saioari izena egokituta: Kafe Transmisioa.

Lau saioetatik lehena heldu den ostegunean izango da Alduden, Alfaro ostatuan, eta hurrengoak 23 astelehenean Gabadin, 26 ostegunean Bastidan eta 30 astelehenean Donazaharren. Saio guztiak 20:00etan hasiko dira eta EHLGk horietara gonbidatu ditu bai inguruetan erretreta adinera hurbilduz etxaldearen segida bermatu gabe daukaten baserritarrak eta bai lurrik eduki ez arren laborantzan sartu nahi duten gazteak.



Argia aldizkaritik CC-By lizentziapena eskuratutako artikulua


txikitasunetik
handi
Landa eta itsasertz garapena
Desarrollo rural y litoral
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Alemaniak ere glifosatoa debekatuko duela iragarri du, Monsantoren pestizida pozoitsua

## 2023ko abenduaren 31rako glifosatoa erabiltzea debekaturik egongo da herrialde germaniarrean. Austria izan zen Europar Batasuneko lehen herrialdea herbizida kimikoari ateak ixten, joan den uztailean.

Alemaniako agintariek intsektuak babesteko programa baten aurkezpena aprobetxatu dute glifosatoari buruzko debekua iragartzeko. Herrialde horretan ezin izango da pestizida pozoitsu hori erabili 2023 urtea amaitzen denetik aurrera.




Lehenik eta behin lorategi, parke publiko eta bide bazterretan erabiltzeari utziko diote, eta 2020 urtetik aurrera pixkanaka nekazaritza arloan ere bai, Alemaniako Ingurumen ministerioak jakinarazi duenez. Hala, Monsanto erosi ondoren Roundup herbizidaren jabe den Bayer multinazional alemaniarrak bere herrialdean ere ateak itxita izango ditu hemendik urte batzuetara.

Joan den uztailean Austriako Parlamentuak bozkatu zuen erabateko debekua, “ardura printzipioa” kontuan edukiz, eta Europar Batasuneko lehen herrialdea bilakatu zen pauso hori ematen. Baina Austriaren erabakia atzera bota nahi du agro-industriaren lobbyak Europako Batzordearen bidez. Izan ere, 2017 urtearen amaieran glifosatoa erabiltzeko baimena beste bost urtetarako berritu zuen Europar Batasunak, 2022ra arte –erabaki polemiko horretan alde bozkatu zutenen artean Alemania bera zegoen–. Angela Merkelen gobernuak orain harturiko debeku progresiboaren bideak saihestu nahi du auzitegietan amaitzea.

Nolanahi ere, hainbat herrialdetan jadanik mugatuta dago glifosatoaren erabilera, hein batean bada ere, hala nola Italian, Herbehereetan, Txekian, Vietnamen, Sri Lankan edo Saudi Arabian, besteak beste. Hiri ugarik ere "glifosatoari ez” esan diote, tartean Bartzelona, Los Angeles, Auckland, Edimburgh, Madril edo Argentinako hamabi hirik.

### "SEGURUENIK KANTZERIJENOA"

Munduko Osasun Erakundeak 2015 urtean aitortu zuen produktua “seguruenik kantzerijenoa” izan daitekeela. Eta AEBetako epaimahai batek 2018ko abuztuan lotu zuen lehen aldiz Roundup-aren erabilera minbiziarekin, Bayer-Monsanto behartuz 285 milioi euro ordaintzera gaixotutako herritar bati, konpentsazio gisara. Multinazionalaren kontrako salaketa uholdeari atea ireki zion epai historiko horrek.

Glifosatoak bioaniztasuna mantentzeko funtsezkoak diren erleei ere kalte handia egiten ari zaiela diote ikerketek. Joan den urtean herri ekimen baten bidez milioi bat sinadura bildu zituzten debekua eskatzeko, eta horren ondorioz iragarri zuen Alemaniako Gobernuak agro-kimiko horren eta antzekoen erabilera debekatzeko plana prestatuko zuela, asteazkenean publiko egindakoa.

**CC-By lizentzia bidez Argiatik ateratako artikulua.**

# La codicia desenfrenada de la industria agroexportadora está liquidando al planeta

Con impotencia e indignación somos testigos de la quema masiva de uno de los mayores ecosistemas del planeta por la codicia de la agroindustria y el gran capital. Por un lado, el gobierno de Bolsonaro no afronta esta grave situación, limitándose a culpar a las ONG de los incendios, mientras que por nuestro lado los gobiernos europeos se lavan las manos, sin asumir su propia responsabilidad sobre las políticas neoliberales que favorecen la agroexportación e incentivan la deforestación de la Amazonía.

Desde hace varios años, la UE se afana de concluir un acuerdo de libre comercio con el sector agroindustrial y dirigentes de Brasil, los mismos que hoy en día son responsables de este último desastre medioambiental en el Amazonas.

La intimidación que opera el gobierno Bolsonaro sobre agencias medioambientales brasileños y la criminalización de defensores medioambientales, intentan suprimir toda oposición a la expansión de los cultivos de soja y ganadería destinados para la exportación y, por consiguiente, a su compra barata por el sector industrial europeo de la agricultura y distribución.

Por ende, no nos hacen falta lágrimas de cocodrilo de nuestros gobiernos europeos. Necesitamos, para empezar, que paren el acuerdo MERCOSUR-UE . Para evitar calamidades medioambientales como la que actualmente azota al Amazonas, para luchar contra el cambio climático y defender a comunidades campesinas en ambos lados del Atlántico, es imprescindible apoyar un modelo de agricultura social y sostenible, basado en la Soberanía Alimentaria.

Reiteramos nuestro apoyo a lxs compañerxs de La Via Campesina en Brasil , hoy, más que nunca, en pie de lucha.

¡Contra el avance de las políticas neoliberales y el saqueo de nuestros bienes comunes, los pueblos en defensa de la Amazonía!



WWF, Porto Velho, RO, Brasil – Michael Dantas

# La Via Campesina celebra la conferencia intermedia en Zimbabue.

Entre el 27 agosto y el 1 de septiembre de 2019 se desarrolló la Conferencia Intermedia de La Vía Campesina en Harare, Zimbabue. La conferencia comenzó con la Asamblea de la Juventud donde se debatieron temas como la migración, la violencia hacia las mujeres, la falta de acceso a la tierra, sobre todo de las mujeres jóvenes, la discriminación hacia el colectivo migrante, las guerras y la falta de políticas públicas que favorezcan que la juventud campesina pueda quedarse en el campo. Se aprovechó la ocasión para hacer un llamado a la juventud a nivel mundial para seguir construyendo alianzas entre el campo y la ciudad, trabajar contra el acaparamiento de tierras, migraciones, desempleo, contra el cambio climático y los tratados de libre comercio como causantes directos de muchos de los problemas que sufre el campesinado en general.

Se reafirmó la agroecología como herramienta de lucha y garante de la construcción de la Soberanía Alimentaria y las y los delegados representantes de la juventud de las 10 regiones de LVC allí presentes resaltaron la importancia de llevar adelante experiencias de formación e intercambios a nivel local, regional e internacional. Así como se enfatizó en la necesidad de crear alianzas tácticas y estratégicas para enfrentar los desafíos que tiene la juventud de La Vía Campesina, como son el enfrentar el éxodo rural, promover políticas públicas para la juventud, enfrentar la crisis climática, hacer que el trabajo en el campo sea visto como atractivo para nuestras juventudes además de una forma de vida que garantiza la soberanía alimentaria.

El segundo día tuvo lugar la Asamblea de la Mujeres dónde se analizó la situación que viven en la actualidad las mujeres en las diferentes regiones que componen el movimiento campesino internacional, haciendo especial hincapié en la situación de las mujeres del continente africano por ser la anfitriona en esta ocasión. Para ello, además de los testimonios de mujeres de LVC de África, la compañera Maria da Graça Samo de la Marcha Mundial de las Mujeres de Mozambique hizo un relato del proceso histórico vivido en el continente africano desde antes de la colonización, el proceso de descolonización y la situación actual desde una mirada feminista. Resaltando el mensaje de que mujeres y hombres del continente africano lucharon juntos en los procesos de independencia de sus países frente al colonialismo y una vez logradas las independencias, no basta con eso, ahora hay que luchar por la liberación, paridad e igualdad en derechos entre hombres y mujeres. Resaltando que la solución pasa por incidir en la educación desde la infancia. Esta asamblea ratificó la necesidad de fortalecer los procesos de formación feminista



laguntzen du:

en las regiones y crear procesos de formación feminista a nivel internacional. El mismo día que la Asamblea de Mujeres, tuvo lugar por primera vez en un evento de estas características la primera reunión de hombres, donde se propuso como objetivo el reflexionar desde su condición como hombres, el papel que juegan en mantener el sistema en el que vivimos.

Del 29 al 31 de agosto, se celebró la Asamblea General, donde el movimiento campesino debatió sus desafíos para implementar la Soberanía Alimentaria y los derechos de los campesinos y campesinas en todo el mundo. Este espacio de evaluación sirvió para dar seguimiento a las acciones y compromisos asumidos en la última Conferencia Internacional de Derio en 2017, por lo que crear y fortalecer las estrategias de comunicación y formación fueron ideas fuerza de este espacio. A esta conferencia intermedia asistieron más de 100 delegadas y delegados de diversas organizaciones campesinas de todo el mundo. En este espacio interno, donde conocer la realidad que vive el continente africano tuvo su protagonismo, aparte de debatir y acordar cuestiones sobre funcionamiento interno del movimiento internacional, se evaluó el momento actual mundial: el avance de las derechas, el papel de los medios de comunicación, la ofensiva del agronegocio y financiación de los bienes naturales,... También se evaluó el papel de los movimientos populares del campo y ciudad en garantizar sociedades democráticas, de respecto, transformadoras de la realidad de la clase trabajadora.

Asimismo, el movimiento en su conjunto profundizó la dinámica de la implementación de la Declaración de Derechos campesinos aprobada en las Naciones Unidas a nivel local, regional e internacional, y con la sociedad.

Para finalizar, el 1 de septiembre se realizaron las visitas de campo a diferentes puntos del país en las cuales se pudo intercambiar con el campesinado de Zimbabue mediante la metodología campesino a campesino. 5 autobuses partieron a primeras horas de la mañana para poder llegar a 5 puntos diferentes del país y que las personas delegadas de todo el mundo pudieran conocer entre otras cosas, una escuela de agroecología, un banco de semillas autóctonas o formas de almacenaje y gestión de agua para la producción agroecológica de verduras y hortalizas en un contexto de escasez de este recurso natural.

Con buen ambiente de trabajo, grandes místicas y unidad de acción, La Vía Campesina se comprometió a crear el camino hacia la VIII Conferencia Internacional de La Vía Campesina en Nicaragua 2021.




laguntzen du:

# Nuevo estándar socava los acuerdos sobre el clima y afianza la geoingeniería

## Quién está presionando para que se debiliten los estándares en la lucha contra el cambio climático

Un informe de la Agencia France Presse (AFP) reveló un nuevo intento por establecer la base para un mercado de "créditos climáticos" para usar técnicas de geoingeniería. Grupos de la sociedad civil están denunciando las negociaciones a puerta cerrada de la Organización Internacional de Normalización (ISO por sus siglas en inglés), que podrían debilitar los esfuerzos para frenar el cambio climático.

El estándar, según AFP, apunta al establecimiento del "forzamiento radiativo" como la base para referirse al cambio climático, en vez de utilizar la reducción de gases con efecto invernadero. Si se implementa, el estándar cambiaría completamente la forma actual de medir el cambio climático y socavaría el Acuerdo de París.

Una norma basada en el forzamiento radiativo crearía incentivos financieros para las actividades que bloquearan la luz del sol a grandes alturas o para otras intervenciones que permitieran el escape del calor. Establecer ese estándar plantea preocupaciones en el sentido de que ciertos actores estarían abriendo paso a un mercado de créditos de geoingeniería solar, similar a los mercados existentes de "créditos de carbono."

"Estados Unidos ha socavado consistentemente las negociaciones sobre el clima por largo tiempo", dijo Neth Daño, co-directora ejecutiva del Grupo ETC, desde Filipinas. "Abandonó el Acuerdo de París y recientemente se opuso a cualquier discusión sobre la gobernanza de la geoingeniería en la Asamblea de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente."

"La pregunta es, ¿quién está tratando de establecer nuevas medidas para la acción climática que pavimentarían el camino para el despliegue y comercialización de la geoingeniería? ¿Se trata de un intento por usurpar la gobernanza climática?"

La geoingeniería podría causar daños profundos a territorios indígenas, tierras campesinas y comunidades locales, por eso la norma ISO sobre forzamiento radiativo debe detenerse drásticamente



**GEOINGENIERÍA SOLAR: RIESGOS Y MORATORIA GLOBAL**

La geoingeniería solar incluye técnicas extremadamente riesgosas, como bloquear la luz del sol que entra a la atmósfera o reflejarla de vuelta, en un intento por bajar la temperatura del planeta. La investigación sugiere que manipulaciones de este tipo del sistema global climático podrían crear sequías en África y perturbar el monzón en Asia.

Hay preocupaciones por la posible instalación de infraestructura para modificar el clima global, pues podría utilizarse como arma, al apuntar a ciertas regiones para alterar su clima. Hasta ahora, pocos han propuesto dicho plan de forma seria, e intentos previos para hacer pruebas a cielo abierto se han cancelado después de protestas públicas.

Por su alto riesgo, el Convenio sobre la Diversidad Biológica (CDB), que tiene 196 Estados miembro, ha establecido una moratoria sobre la implementación de la geoingeniería. Estados Unidos no ha ratificado el CBD.

Uno de los grupos principales que intentan avanzar la geoingeniería solar es el Programa de Investigación sobre Geoingeniería Solar de Harvard, que está presionando para que se realice el primer experimento a cielo abierto (SCoPEX), para que avance la geoingeniería solar.

Una coalición global, diversa, de organizaciones ambientales, de indígenas y agricultores se oponen a esta iniciativa y otros intentos para implementar los experimentos de geoingeniería. Comunidades indígenas que se encuentran en la ruta de SCoPEX ya indicaron su desacuerdo con que el experimento avance.

El forzamiento radiativo socavaría radicalmente los actuales esfuerzos para frenar el cambio climático
Documentos filtrados sobre la propuesta ISO para la gestión del forzamiento radiativo sugieren que las corporaciones involucradas en rociar a la atmósfera químicos para bloquear el sol podrían beneficiarse con enormes ganancias.

“Cambiar las mediciones hacia el forzamiento radiativo es el sueño de




los inversionistas que respaldan la geoingeniería solar", explicó Jim Thomas, co-director ejecutivo del Grupo ETC, con sede en Quebec. "Hasta ahora, la geoingeniería solar se ha mantenido, correctamente, fuera de los mercados de carbono."

El presidente de Estados Unidos contrató entusiastas de la geoingeniería como parte de su equipo al inicio de su mandato, y sus consultas reiteradas sobre el uso de armas nucleares para detener huracanes dan razones preocupantes para pensar que Estados Unidos está detrás las discusiones en la ISO.

"Es una forma de debilitar la moratoria internacional de la ONU y forzar al resto del mundo a asumir riesgosas técnicas de geoingeniería", agregó Jim Thomas.

Investigaciones recientes han revelado que las compañías de combustibles fósiles llevan décadas investigando sobre geoingeniería solar y promoviéndola. Se sabe que las discusiones en la ISO están dominadas por intereses industriales y que no dan espacios para las perspectivas de la sociedad civil. Muchas voces clave, desde organizaciones de la sociedad civil, a pueblos indígenas y expertos gubernamentales en ambiente y biodiversidad, son excluidas del proceso de la ISO.

«La geoingeniería solar incluye técnicas extremadamente riesgosas, como bloquear la luz del sol que entra a la atmósfera o reflejarla de vuelta, en un intento por bajar la temperatura del planeta»

"La ISO es una organización sumamente técnica —explica Silvia Ribeiro, directora del Grupo ETC en América Latina— sus estándares afectan millones de personas, que nunca tienen oportunidad de conocer las discusiones que se llevan a cabo, pero en este caso, los riesgos son mayores. La gestión del forzamiento radiativo podría afectar sustancialmente las vidas de miles de millones de personas y cambiar para peor el destino de continentes enteros."

"La geoingeniería es una solución falsa y peligrosa al cambio climático, y al mismo tiempo una excusa muy útil para las compañías que ganan con la quema de combustibles fósiles. La geoingeniería podría causar daños profundos a territorios indígenas, tierras campesinas y comunidades locales, por eso la norma ISO sobre forzamiento radiativo debe detenerse drásticamente" agregó Silvia Ribeiro.

# Huelga mundial por el cambio climático

Numerosas ciudades y pueblos acogerán diversos actos el próximo 27 de septiembre en apoyo a la Huelga Mundial por el Clima. Una fecha que se produce en el marco de las movilizaciones por el clima, a nivel global, y de la semana de acción del 20 al 27 de septiembre convocada por Fridays for Future.




El próximo 27 de septiembre se celebra la Huelga Mundial por el Clima con un alcance global y que, en el caso del estado, cuenta con el apoyo de más de 300 organizaciones, adheridas al manifiesto publicado el pasado mes de julio en defensa del futuro, de un planeta vivo y de un mundo justo. Una huelga que tiene como objetivo exigir a los gobiernos medidas efectivas ante la emergencia climática. Esta crisis climática es el mayor reto al que se enfrenta la humanidad y, por este motivo y con el fin de dar respuesta a la magnitud del problema, la sociedad se está coordinando a nivel mundial. Durante la semana del 20 al 27 de septiembre tendrán lugar numerosas acciones en multitud de municipios de todo el Estado, que culminarán en movilizaciones masivas en todo el mundo el 27 de septiembre.

Convocatorias en Euskal Herria

En Euskal Herria han llamado a diferentes movilizaciones para el día 27 de septiembre en las capitales de provincia.

Bilbao a las 19:00 en el museo Guggenheim

Donostia a las 18:00 en Alderdi Eder

Iruñea a las 12:00 y a las 19:00 en el ayuntamiento

Gasteiz a las 12:00 en la Plaza Nueva

# Austria bloquea el acuerdo UE- Mercosur

El Consejo Nacional de Austria votó en contra del proyecto de un Acuerdo de Libre Comercio entre el Mercosur y la Unión Europea.El acuerdo entre el Mercosur y la Unión Europea pende de un hilo. Al conocido rechazo de Francia se sumó ahora el primer rechazo formal al tratado, que necesita el aval de todos los países para entrar en vigencia.

El parlamento de Austria aprobó una moción que obliga al gobierno a vetar ante el Consejo Europeo la aprobación del acuerdo comercial, con lo que de ratificarse esa oposición no habrá formalización del tratado.

La propuesta tuvo el apoyo de todos los partidos parlamentarios austríacos, desde la izquierda hasta la extrema derecha, con la excepción del liberal NEOS que apoya el acuerdo aunque reclama algunas modificaciones.

Austria celebrará el próximo día 29 elecciones generales anticipadas, de las que saldrán un nuevo Parlamento y un nuevo Ejecutivo. El nuevo Gobierno estará obligado a aplicar este veto en el Consejo Europeo, donde están representados todos los países de la UE y que debe ratificar el acuerdo, junto con el Parlamento Europeo y los Estados miembros.

Aunque el proceso acaba de comenzar y falta mucho tiempo para que el texto sea aprobado, un sólo veto de alguno de los 28 estados miembros de la UE lo hará caer.





# asegura tu explotación

EHNE-Bizkaia te posibilita, a través del Seguro Agrario, cubrir en las condiciones más amplias la vida de tus animales y tu cosecha.

No dejes al azar tu futuro y asegura las incidencias que pueda sufrir tu explotación con un pequeño coste para tu explotación. Existen diferentes modalidades de seguro que cubren desde accidentes, enfermedades, complicaciones en el parto, mamitis... La amplia variedad existente te permitirá acondicionar el seguro a tus propias necesidades.

Infórmate y elige entre las opciones de aseguramiento que más te interesen.

**infórmate y protégete**

**946749008- 946693985**

COAG

Financiado por la Entidad Estatal de Seguros Agrarios ENESA
El seguro agrario está subvencionado por el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación

# Formazio proposamenak

## La reforma de la PAC y las futuras generaciones agrarias

La Política Agrícola Común es una de las políticas más antiguas de la UE y a la que se destina un importante presupuesto. Ha sido y es determinante para el mundo agrario vasco, y por extensión, para toda la sociedad. A pesar de que fomenta el modelo agroindustrial, sus ayudas siguen siendo esenciales para las pequeñas explotaciones.




En esta jornada queremos reflexionar acerca de la reforma de la PAC y preguntarnos si puede suponer una oportunidad para un cambio de modelo. Para ello, presentaremos una investigación sobre la PAC2020 y el relevo generacional, con la autora de la misma. Debatiremos con IPES-Food acerca de su propuesta para ampliar la mirada y transitar de las políticas agrícolas a las políticas alimentarias. Y conoceremos el estado de las negociaciones sobre esta reforma, y cuáles son las reivindicaciones de los y las baserritarras al respecto.

Fecha: Miércoles 25 de septiembre, 16.00h.

Lugar: Salón de grados de la facultad de economía de la UPV

## NPB eredu berriak landa eremu bizia lortzen laguntzen al du? 2021-27 NPB berriaren aukerak elikadura sistema osasuntsuak eta landa eremu biziak lortzeko



Landa eremua eta nekazaritza sektorea esparru estrategikoak dira Euskal Herriko gizarte eta ekonomiarentzako. Bertara zuzendutako gaur egungo politikak nagusiki Europa mailatik datoz, Nekazaritza Politika Bateratuaren eskutik. Politika honek ibilbide oparoa du Europa mailan eta aldizkako aldaketa esanguratsuak jaso izan ditu bere ibilbidean zehar. Horrelako aldaketa baten aurrean gara egun orain definitzen ari baita 2021-27 aldirako politika honen norabidea. Aitzitik gure gizartean ez da izan eztabaida nahikorik eta politika arrotza da hura egun gizartearen gehiengoarentzat.

Horregatik, politika honen baitan nekazal sektoreari eta baserritatrrei, landa eremuei eta orohar gure herriei eta herritarroi NPBak nola eragiten digunaren eztabaida sustatu nahi dugu, diru laguntzak nola banatzen diren ezagutzetik eta alternatibak nondik nora jo dezaketen mahaigaineratuz, NPBan tokiko eragileek jokatu dezaketen papera ardatz bezala hartuz.

Lekua: Elizondoko Arizkunenea kultur etxea.

Eguna: Irailaren 27, ostirala.




## El libro de la madera, una vida en los bosques

El libro de la madera (Editorial Alfaguara), una obra con la que busca transmitir las enseñanzas de expertos y aficionados, divertidas anécdotas y emocionantes historias de vida. Para ello el escritor ha visitado los bosques “en un Volvo 240 de tracción trasera, a alguna de las zonas más frías del país, en busca de leñadores y devotos de las estufas. Me he parado en cruces a ver si escuchaba el rugido de una motosierra o, mejor aún, el chirrido de un jubilado con una sierra manual”. Un libro para emocionarse, para aprender, para reflexionar sobre nuestra relación con el fuego y el ritmo de la vida, la naturaleza humana, el capitalismo moderno y la ecología. Un sorprendente éxito de ventas y fenómeno mundial, ganador del British Book Industry Award al Mejor Libro de No Ficción del Año que marca la tendencia mundial de retorno a la naturaleza, el slow life y el neorruralismo.



## Elikadura burujabetzaren aldeko gizarte mugimendua Euskal Herrian

Eusko ikaskuntzaren Euskonewseko 742. zenbakian Unzalu Salterainek idatzitako artikulua dator. Artikulu honen helburua mundu mailan jaiotako proposamen politikoa Euskal Herrian nola gizarteratzen joan den eta etorkizunera begira gizarte ikuspegi batetik aurreikusten diren erronkez zein aukerez jardutea da.

## Bide agroekologikoak

EHNE Bizkaiak formazio bideoak publikatu ditu Bide agroekologikoak izenburupean. 2019 urteko formazio programaren baitan, nekazal sindikatuak bideo laburrak sortu ditu gai ezberdinen inguruan.

Bederatzigarren bideoa badago ikusgai jada sindikatuaren youtube kanalean, oraingoan Uxarte sagardotegiko Jose Antonio Zamalloak sagr zuku eta sdagardoa modu artisauan nola egin azaltzen digu.



https://youtu.be/yvYpJlh7v7g

# MERKATUA

## SALGAI - SE VENDE

Se venden estacas de Acacia de 1.80m hechas a mano. 658746649

Pasterizatzeko plevnik makina salgai.100 litroko edukia, trifasikoa. 636451563

Zezenetarako urte bateko Angus txekorra salgai. Kartaduna. 686.46.70.69

Se vende remolque agricola Barbero, 16T con elevación trasera. 649.42.82.99

Se vende tanque Alfa Laval 1200l. 943.83.55.03

Se vende tolva de pienso 5T 943.83.55.03

Se vende generador eléctrico toma fuerza tractor 943.83.55.03

Se vende autocargador JB con tracción 16m3 943.83.55.03

Se vende bascula colgante gama intermedia en perfecto estado 666.58.39.25

Se vende Dumper Ausa 1500kg, 4x4 en perfecto estado. Cubiertas nuevas y recien pintado. SIN documentación. 628440381

Se venden bolas de hierba ensilada, fácil de cargar. 615721755

1,5 hektareako terreno bat salgai edo alokatzeko Galdakaon fruta-arbolak jartzeko baimenarekin, guztiz zarratuta bi metroko altuerako hesiarekin 659539779

Ahuntzak salgai. Azpigorriak 6 ama eta 4 kume. 693606606

Se vende tractor Agria 8900 articulado en buen estado con documentación. 628440381

Se vende amarre de vaca(5 agujeros), 2 comedores centrales y 2 de pared (oveja/cabra) y cencerros. 607424623

Venta casa nueva en Navarra. . Posibildad de huerta. 118.000€ 650428982

Akazisko esolak salgai. Venta de estacas de acacia. 615740654

Se vende desbrozadora «Peruzzo» 1600, en buen estado. 656.76.87.34

Tolosako indaba salgai 40kg 94.616.82.89 // 628.44.53.27

Se vende carro mezclador seco de dos ejes horizontales. 649840506

Se vende generador electrico. 680351991

Se vende novillo limusin de inseminación. 94.4556552

Se vende desensiladora de bloque KUHN por desuso. En buen estado. 619539958

Hidrolimpiadora bat salgai. Trifasikoa eta 4 CV. 639983816

Arratoi txakur kumeak oparitzen dira 722222338

Traktore Agria 9.900, 30CV salgai. Guztiz berritua, apero eta guzti. 609458243

Bi-hiru urteko txakur gazteak dauzkagu Ataunen. 617866334

Venta de 4000m2 de finca con frutales, junto al río Arga (Zona Tafalla) 13.000€. 650428982

Venta finca rural, Muxika. Separado en dos parcelas (7400m2 y 3800m2) 660809680

Gaztainazko estakak, eskuz eginak 690032104- 606500270

Belar takoiak salgai. 608677606

Vendo tractor John Deere, modelo 1020, con rotavator. Preparado para invernadero. 946814556, llamar al mediodía

500 litroko DeLaval esne tankea salgai. 625022559

Se venden bolas de hierba ensiladas. Fácil de cargar. 649840506

20 ardi mutur gorri salgai. 688682308

Pasquali traktorea salgai. 21 CV. Remolkea, goldea eta rotabatorragaz. 946253266

Alquilo caserío con carretera, agua y luz con generador. Huerta y opción de más terrenos. precio: 225 euros al mes. 682394124 - 946731569

Se vende esparcidor de basura Pasquali para tractor y freno hidraulico. 3.000 euros. 682394124 - 946731569

Se vende terreno de 10.000 metros cuadrados en Gamiz. Posibilidad de inicar explotación agraria. 685703231

14 zaldiko Pasquialia salgai, arranke eta guzti. 695769275

Se vende rulo suspendido en buen estado por no utilizar. Anchura de 2m más acople. Zuia (ARABA) Precio 650€. 636369361

Se venden terneras y terneros pasteros. Limousin. Con carta. 633177715

Behi satsa oparitzen da. Se regala basura de vaca. En Arrankudiaga. 688665848

Belar siku bolak salgai. 628041526

Tractor agrícola de cadenas con desbrozadora. Tipo oruga. 658746649

Se venden bolas de hierba seca y bolas de silo. 685707492

Gurdia salgai. 4 metro luze eta 2 zabal. Alde bakoitzean bina gurpilekin. 695769275

Belar fardoak saltzen dira Durangaldean.Tlfno: 615 737 123

80 CVko Case traktorea salgai. Pintxo, pala eta kabinarekin. 695769275

Vendo autocargadorda marca Comesa de carga trasera, trabaja con su tracción. Trabaja con tractor Pasquali de 38cv. 657791863

Euskal txerriaren txerrikumeak salgai. 685784841

Motocultor nuevo Agria 7710GRV con motor de gasolina Honda GX 270. 2.400 euros. Nuevo. 605744515

Belar lehorra, bolak, pakoiak eta siloa salgai. Aterpean gordeak. 659 132 094

Suzuki Bandit 400cc eta Honda Panaeuropean 1.100 cc. 658746649

Se vende segadora acondicionadora Celia 270. 615704960

Se venden fardos de viruta seca para camas, sin polvo, paletizado. Buen precio. 669720290

Vendo tanque de leche de 500 litros y picadora de carne industrial. Los dos como nuevos. 617972209

Se venden potros españoles, machos y hembras. Capa alazán negro y castaño. Excelentes orígenes. 635738805

Se ofrece terreno para alquilar en Erandio. 3 hectáreas, para ganadería o agricultura. 615715192

Se vende caserío con pabellón de ganado con 12 hectáreas. Zona de Bermeo-Bakio. 635735988 - 699765630

Se vende tanque de leche con motor. Funciona. 617972209

Se venden dos volteadoras Khun de 4 rotores, de 3,80 metros y 4,20 metros. 676517787

Saltzeko esne tanka, Japy markakoa, 1700 litro. Garbitze automatikoa. Estatu onean. (00-33) 632-30-76-53.

Se vende hierba seca y bolas de silo. Están bajo cubierto. Belar bolak salgai, lehorra eta siloa. 659132094

Ardi moztaileak. Joxe. 659262747

Se venden tarros de vidrio de todos los tamaños para conservas. También vinagre para encurtidos. 636451563

Se vende alfalfa ecológica. En pelets (19% proteína) y en rama. 629204215

Se vende caserío en Getxo. 2 Plantas, 90 metro cuadrados. 1 hectárea de terreno soleado junto al río. 650155841 - 649563720

Vendo NISSAN NAVARA. 5.000€. 699300342

Se vende forraje en fardo pequeño. Paja, hierba y alfalfa. Buena calidad. Puesto en destino. Económico. 669720290

Se vende granja en Getxo, a 3 kms de la Avenida de Los Chopos. 4000m2 terreno con un edificio de 1.560 m2. Urge vender, precio a convenir. 651 881 195

Se venden estacas de acacia y alambre ganadero. Se hacen cierres y limpieza de terreno. Tlf 666 583 478

Se venden fardos de paja de cebada, de 6 cuerdas, metidos en almacén. 679485712–626496393

## EROSTEKO - COMPRA

Golda SAME delfino 35 de segunda mano. 94 616 64 86

Se compra o alquila terreno para pastos de ganado. 616166509

Se compra tanque de leche 150-200 l. No importa que el motoir no funcione. 653019379

Se compra estructura de invernadero tipo tunel. 691210034

Arrazola eta Axpe inguruan landak errentan hartzeko prest. 662 005 579

## LANA - TRABAJO

Limpiezas de chimeneas, estufas, cocinas económicas, calderas de calefacción, etc. Urko 605770754

Se ofrece pastor para vacas, ovejas y cabras. 38 años, navarro. Interesad@s llamar a 618 04 65 70 (Pedro).

**Ipini hemen iragarkia** DOAN 94 623 27 30


URRIAK 2-4
ITSASMUSEUM - BILBAO
GOZO
I NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK
ESKOLA ELIKADURA
OSASUNGARRIA ETA IRAUNKORRA
www.gureplateragureaukera.eus
BIDEZKO ELIKADURA
ehige
Cooperación Española